



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 20a

24. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

—11-24/LEY-00001. 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00027. Mozioa, zeinaren bidez erabakitzen baita babesaren ematea Igari-Bidankoze-Erronkariko kontzentratze-gunean laneko nahiz giza esklabotzako baldintzak, errepresioa eta zigorra pairatu zituzten pertsonen senitartekoek aurkeztutako kereilari. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (144. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-24/LEY-00001. 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua**

### *ARTIKULUEI ETA PARTIDEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak eta partidei aurkezturikoen argitalpen partziala. Proiektu hori 2024ko urtarrilaren 23ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **1. ZUZENKETA**

##### **GEROA BAI**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 7. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«c bis. "Ibilgailuak txatar bihurtzeko laguntzen deialdia"».

Zioak: Nafarroan ibilgailu asko dago txatar bihurtu gabe; hori dela-eta, litekeena da beharrezkoa izatea Industria Departamentuak deialdi bat egitea berariaz horretarako.

#### **2. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 8. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«ñ bis. 950001 96100 4809 241109. "Autoenplegua sustatzeko laguntzak"».

Zioak: Partida handitu beharra dago.

#### **3. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 9. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«k bis. F40000 F4600 6020 131103. "Larrialdiak eta Segurtasuna Koordinatzeko Zentroaren egoitza berriko obrak"».

Zioak: Partida handitu beharra dago.

#### **4. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 9. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«k bis. F40000 F4600 6000 131100. "Lurrak erostea"».

Zioak: Partida handitu beharra dago.

Larrialdiak eta Segurtasuna Koordinatzeko Zentroa ezartzeko proiektuak beharrezkoa egiten du Aranguren Ibarreko Udalaren jabetzako lurra eta jabetza pribatuko lurra erostea, guztira 130.000 m<sup>2</sup> inguru.

Proiektua garatzen jarraitzeko beharrezkoa da gutxienez ere 1. faseko lurra erostea (75.000 m<sup>2</sup>), Foruzaingoaren polizia-etxe nagusi berria eraikitzeko epeak bete daitezkeen.

Proiektu horren sustapena Nafarroako Gobernuaren 2023-2027 legegintzaldirako programakordioan jasota dago:

Aitzina joanen gara Nafarroako Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren proiektuan (Mutiloa). Epe ertainerako proiektu hori zenbait fasetan burutuko da, eta Barne departamentuko zenbait egoitza hartzea du helburu, hala nola Suhiltzaileen Parke Nagusia, 112-SOS Nafarroaren egoitza, trafikoa kudeatzeko zentro bat eta Foruzaingoaren Komisaria Nagusia.

## 5. ZUZENKETA

### GEROA BAI

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikuluari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa.

«11. bis. Kultura, Kultura, Kirol eta Turismo Departamenturen honako partida hau: “Aralarko San Miguel santutegia bide-elkargunea”».

Zioak: Partida bat sortzea da helburua, 10 euroko zenbateko sinbolikoarekin (zenbateko hori handitu egin liteke), departamentuak funts gehiago jarri ahal izan ditzan hala erabakiz gero; helburua garbi dago: santutegia zaharberri ahal izatea edo, hobeki esanda, zaharberri-proiektuarekin jarraitzea. Zehazki, santutegiak berak eta bertako kofradeek legebiltzar honi adierazitakoaren arabera, gazteen aterpetxea egokitzeari emanen zaio lehentasuna.

## 7. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

41. artikulua kentzeko zuzenketa. Ikerkuntzaren sustapena.

Zioak: Guztiz ilegala da Osasun Zientzietako ikerkuntzaren sustapena egitea; partida horren bidez, ikerkuntza proiektuak ordaintzen dira, baina ez soilik esparru publikoko ikertzaileek egindakoak, ezpada esparru pribatuko ikertzaileek egindakoak ere, inbertsio bereki gisa.

Artikulu hori onetsiz gero, 7. kapituluko partida baten kargurako ikerkuntza proiektuak ordaintzeko dirulaguntzak ematen ahalko dira (hala ematen direlako), Dirulaguntzei buruzko Foru Legean xedatutakoa bete gabe, salbu eta aurrerakinei dagokienez.

Halatan, Osasun Departamentuari legea ez betetzeko atera irekitzen zaio, legeak zenbait betekizun ezartzen baititu dirulaguntza horiek eskatzen dituztenen arteko berdintasuna, lehia,

gardentasuna, objektibotasuna eta funts publikoen kontrola bermatzeko.

## 8. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

52. artikuluko 2. paragrafoa kentzeko zuzenketa. Hondakinen Funtzari dagozkion gastu-kreditu exekutatu gabeen txertaketak.

Zioak: Araudiak jasotzen duen aurrekontu-kudeaketa egokiaren printzipioen aurkakoa da artikuluko bigarren paragrafoa; izan ere, hurrengo ekitaldi batzuetan Hondakinen Funtseko gerakinak jatorrikoa ez bestelako partida batzuei atxikitako gerakin gisa sartzeari ahalbidetzen du, hain baita ambigua definizioa: “Hondakinen Funtserako ezarritako helburu eta destinoen baitan”.

## 9. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65. artikulua kentzeko zuzenketa. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 14. osagaieko funtsekin finantzaturako dirulaguntzen aurrerakinak.

Zioak: Gauza bat da funts horiek bizkor kudeatu ahal izatea, eta beste bat kudeaketa hori bermerik gabe egitea. Funtz publikoak alferrik arriskuan jartzea da 60.000 euro baino gehiagoko dirulaguntza jasotzen duten enpresei abala emateko betebeharra kentzea.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA

#### CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

66. artikulua aldatzeko zuzenketa. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 2. osagaieko dirulaguntzen deialdiak.

66. artikulua testua honela geldituko litzateke:

«66. artikulua. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 2. osagaieko dirulaguntzen deialdiak.

Administrazio-ebazpen bidez onesten ahalko dira kreditu-zenbateko gehigarriak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programak gara-

tzean onetsitako dirulaguntzen deialdietan, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, baita eskabideak aurkezteko epea bukatuta dagoenean ere, programa horiek finantzatzeko jaso diren funts berrien zenbatekoarekin. Halaber, baliagarri dauden funtsak programen artean birbanatzea onesten ahalko da, errege dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz. Gastu gehigarriaren igoera onesteak ez du berekin ekarriko eskabideak aurkezteko beste epe bat abiaraztea».

Zioak: Nafarroa estatutan aitzindaria da birgaitzerako SEM funtsak kudeatzen eta esleitzen. Bide horretan aitzinera egiteko eta jasotako baliabide guztiak optimizatzeko egiten dugu zuzenketa tekniko hau.

## 11. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenbiziko xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

Zioak: Egoera ekonomiko honetan, ez dago justifikatuta 65 urte bete dituzten baina zerbitzu aktiboan 70 urte bete arte jarraitu nahi duten funtzionarioak kaltetzen dituzten neurriak.

Gaur egun, gainera, salbuespenak egiten ari dira irizpide politiko edo/eta arrazoitu gabeak erabilita, eta horrek justifikatu gabeko aldeak eragiten ditu Administrazioako langileen artean.

## 12. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenbiziko xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

«Orokortasunez luzatzen dira, 2024rako, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 2., 3. eta 6. artikuluan aurreikusitak.

Erretiroa hartzeko gehieneko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatutako 1. artikuluko apartatuak funtzionario guztiei aplikatuko zaie, funtzionarioa atxikita dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistema zein den ere, barne harturik Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboan araubide

iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikiak ere.

Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanen du bere zenbait langileren zerbitzu aktiboa 2024. urtean zehar luzatzea zerbitzuaren premiengatik eta profesionalik eza-rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko legezko erretirorako adinera iritsi ondoren, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5 estamentuetako profesional fakultatiboei, bai eta estamentu horietakoak izanik zerbitzuburu edo laguntza-ataleko buruaren eginkizunak betetzen ari diren profesionaleri ere, baldin eta, betiere, norbere espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago eta zerrendan aldi baterako kontratatzeko izangairik ez badago. Luzapena baimentze aldera inguruabar hori egiaztatzeko momentua izanen da legezko erretirorako aurreikusita dagoen data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarria izanen da baimen-ematearen baldintzei eutsiz gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugatzat harturik».

Zioak: Medikuntzako zerbitzuburuak eta atalburuak erretirora pasatzea geroratzea ekidin nahi da, baldin eta espezialitate horretako zerrenda irekietan kontratatua izateko izangairik badago, aurreten gertatu den moduan.

## 13. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat, lehenbizikoa bis, gehitzeko zuzenketa.

«Lanbide-karrera 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen onetsiko da foru lege bidez, foru erkidegoko langile guztientzat (funtzionarioak eta lan-kontratudunak), eta 2025eko urtarrilaren 1etik aitzina kobratuko da».

Zioak: Beharrezkoa da Gobernuak administrazio publikoko langile guztientzako lanbide-karrera garatzeko konpromisoa hartzea, ez soilik osasun-langileentzako. Horrek segurtasun juridikoa ematen die denei, eta denen egoera bidezkoagoa izatea ekarriko du.

**14. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, lehenbizikoa bis, gehitzeko zuzenketa.

«Aurrekontu-erreserba bat zuzkituko da, Familiari buruzko Legea foru administrazioaren zerbitzuko langileei aplikatzeko».

Zioak: Lehentasunezkoa da hori familia-bizitzaren kontziliaziorako, bereziki beren kargura adingabeak edo mendekotasuna dutenak dauzkaten pertsonentzat. Hartara, Familiari buruzko Legean jasotzen diren baimenak administrazioaren zerbitzuko langile guztiei aplikatzen ahalko zaizkie.

**15. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, lehenbizikoa bis, gehitzeko zuzenketa.

«Zerbitzu aktiboan jarraitu ezin izatea.

Langile publikoek ezin izaneren dute inolaz ere zerbitzu aktiboan jarraitu 70 urte betetzen dituztenetik aitzina».

Zioak: Egun gertatzen ari diren diskriminazio-egoerak ekiditeko.

**16. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, lehenbizikoa bis, gehitzeko zuzenketa.

«Langile publiko guztientzako lanbide-karrera.

Nafarroako Gobernuak foru lege bat aurkeztuko dio parlamentuari, langile publiko guztientzako lanbide-karrera abian jartzeko 2025eko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez».

Zioak: Urgentea da langile publiko guztientzako lanbide-karrera ezartzea, eta horretarako beharrezkoa da ezartzea zer egunetan sartuko den indarrean.

**17. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautapen prozesuei dagozkien xedapenak izeneko bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdietan parte hartzeko eskabideak telematikoki aurkeztea bide onargarri bakar gisa exijitzeko aukerak kaltetu ditzake eskabideak bide horren bitartez egiteko modurik ez dituzten pertsonak, bereziki pertsona zaurgarriak.

**18. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontratazio-prozesuetan egiten dituzten deialdiei buruzko xedapenak izeneko hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hautagaiak deitzeko eta aldi baterako kontratuen hautaketa soilik bide telematikoko eta elektronikoen bidez egiteko aukerak kalte konponezinak eragin diezazkieke lanpostu baterako hautagaiei, baldin eta ez bada egiten berme egoiek, eta berme horiek ez daude legez ezarrita.

**22. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat, hemeretzigarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Lankidetzaren hitzarmena, Espainiako Gobernuaren Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin, Nafarroan abiadura handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko.

Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatearen ordezkari gisa, lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko du 2024an, Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioarekin, Espainiako Gobernuaren ordezkari den heinean, Nafarroan Abiadura Handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko. Hala, Nafarroako Gobernuak lizitatuko ditu sareko obrak, Estatuak, urtero, dagozkion Estatuak Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Foru Komuni-

tatearen esku jartzen dituen baliabideen bidez. Hitzarmen horrek beharrezko obren eta baliabideen egutegi bat ezarri beharko du, 2028an guztiz amaitzeko moduan».

Zioak: Beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak benetako konpromisoa izatea AHTrekin, epeak zehaztuta, asmo onen adierazpenetik harago joanen dena. Inbertsio horrek trakzio-ahalmen handia du jarduera ekonomikoan, biderkatzailea delako, eta, beraz, enplegua berreskuratzeko eta sortzeko formula bereziki egokia da. Gainera, Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunaren etorkizunaren aldeko apustua da, bere ingurune geografiko eta ekonomikoarekin hobeto lotzen baitu lurraldea, eta hori ezinbestekoa baita gure kanpoko sektore erabakigarriak. Era berean, lurraldea egituratzen lagundu dezake, eta konektibitatea hobetu.

### 23. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aldaketaren azken xedapenetako bigarreneko hirugarren apartatua aldatzeko proposamena.

«Hiru. 45. artikuluko 1. eta 3. puntuak aldatzen dira, eta hauxe da testu berria:

“1. Kontratu publikoen iraupena ezartzeko, kontuan hartuko dira honakoak: prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak, eta horien ematea aldizka norgehiagokan jarri beharra.

Kontratuan, luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango dira, betiere, luzapenok irauten duten bitartean kontratuaren ezaugarriak aldatzen ez badira, eta kontratuon esleipenerako lehia kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartuta egin bada, luzapen-aldiak barne.

Luzapena espresuki erabakiko da, bi aldeak aurrez ados jarrita, non eta hori arautzen duen orriak ez duen ezartzen kontratazio-organoak nahitaezko luzapena onesteko aukera duela”.

“3. Baldin eta, kontratu baten muga-egunean, aurreikusi ezin diren gertaeretatik eratorritako gorabeheren ondorioz, formalizatu ez bada prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria eta interes publikoko arrazoiak badaude hura ez eteteko, jatorrizko kontratua gehienez bederatzi hilabetez luzatzen ahalko da, gainerako baldintzak aldatu gabe, harik eta kontratu berria gauzatzen hasi arte, baldin eta azken horren lizitazio-iragarkia hiru hilabete lehenago argitaratu bada, gutxienez, jatorrizko kontratuaren amaiera-

data baino, edo, gonbidapena duten prozeduren kasuan, hura hamabost egun lehenago bidali bada”».

Zioak: Ez dago arrazoizko ziorik nahitaezko luzapena 9 hilabetez harago luzatzeko, denbora hori aski baita kontratuaren muga-eguna baino 3 hilabete lehenago argitaratu beharreko lizitazio bat ebazteko.

Ate hori modu hain anbiguoan irekitzeak –alegia, prestazioa beharrezkoa izatea oinarritzeko eskubide bat bermatzeko– berekin dakar 2 urteko iraupeneko luzapenei atea irekitzea, iruzurrezkoak izan daitezkeenak gainera, baldin eta iragarkiaren argitalpena erretiratzen bada behin luzapena gertatzen denean.

### 24. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria honela geldituko da:

“Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. Etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko obregatikoen kenkaria.

1. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizteko asmoz 2022an, 2023an eta 2024an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 20 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2025eko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murriztu dela ulertuko da, soilik, ehuneko 7 murrizten bada, gutxienez ere, obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako etxebizitzaren energia-efizientziari buruzko ziurtagirian jasotako berokuntza- eta hozkuntza-eskariaren adierazleen batura, obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagirikoekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da.

2. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko asmoz 2022an, 2023an eta 2024an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruaren ehuneko 40 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2025eko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, obra horiek egin diren etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetu dela ulertuko da, soilik, gutxienez ere ehuneko 30 murrizten denean energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea, edo etxebizitzaren energia-kalifikazioaren hobekuntza bat lortzen denean, halako moldez non, kalifikazio-eskala berean, «A» edo «B» energia-klasea lortzen den, hori frogaturik obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako energia-efizientziaren ziurtagiriaren bidez, obren hasiera aurretik jaulki zenarekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 7.500 eurokoa izanen da.

3. Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinetan kokaturiko etxebizitzaren jabe diren zergadunek, baldin eta eraikin horietan 2022an, 2023an, 2024an eta 2025ean energia-birgaitze obrak egin badira, zilegi izanen dute aipatu obregatik epe horretan ordaindutako kopuruaren ehuneko 60 kentzea. Ondorio horietarako, eraikinaren energia-birgaitze obratzat joko dira halakoak non etxebizitza kokatzen den eraikinaren energia-efizientzia hobetzea lortzen baita, eta frogatu egin beharko da, eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriaren bitartez, zeina teknikari eskudunak jaulkitako baitu obrak egin direnean, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren beherakada izan dela, energia-ziurtagiriaren jaso eta gutxienez ere ehuneko 30ekoa edo, bestela, eraikinaren energia-kalifikazioa hobetu dela, kalifikazio-eskala berean «A»

edo «B» energia-klasea lorturik, obren hasiera aurretik jaulkitako ziurtagiriarekin alderatuta.

Etxebizitzekin parekatuko dira haiekin batera erosiak diren garaje-plazak eta trastelekuak.

Ez dute kenkari hori egiteko eskubiderik emanen jarduera ekonomiko bati atxikita dagoen etxebizitza-zatian eginiko obrek.

Kenkaria 2022, 2023, 2024 eta 2025eko zergaldietan eginen da haietako bakoitzean ordaindutako kopuruei dagokienez, baldin eta energia-efizientziaren ziurtagiria kenkaria eginen den zergaldia amaitu aurretik jaulki bada. Ziurtagiria jaulkitzen denean obra horiengatik kopuruak ordaindu ziren zergaldiaren ondorengo batean, kenkaria eginen da ziurtagiria jaulkitzen den aldiaren. Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da.

Kenkariaren urteko gehieneko oinarria gainditzeagatik kendu gabe geratu diren kopuru ordainduak kentzen ahalko dira, muga berarekin, hurrengo lau ekitaldietan. Kenkariaren oinarri metatuak ezin izanen du ezein kasutan 15.000 euro gainditu.

4. Ez da eskubiderik egonen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak egiteko, obra egiten denean jarduera ekonomiko bati atxikitako etxebizitza-parteetan, garaje-plazetan, trastelekuetan, lorategietan, parkeetan, igerileku eta kirol-instalazioetan eta antzeko beste elementu batzuetan.

Etxebizitza batean eginiko obra batek berak ez du ezein kasutan eskubiderik emanen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak egiteko. Era berean, kenkari horiek ez dira aplikagarri izanen halako kasuetan non frogaturiko hobekuntza eta ordainduriko kopuruak eraikinaren osotasunean gauzaturiko ekimenen ondoriozkoak izan eta xedapen honen 3. apartatuan jasotako kenkaria aplikatzekoa denean.

1, 2 eta 3. apartatuetan jasotako kenkariaren oinarria 64.4 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta soilik hartuko dira kontuan obra horiek egiten dituzten pertsona edo erakundeei, bai eta aipatu ziurtagiriak ematen dituzten pertsona edo erakundeei ere, kreditu edo zordunketa txartel bidez, banku transferentziaren bidez, txeki izendunen bidez edo kreditu erakundeetako kontuetan egindako diru-sarreraren bidez ordaindutako zenbatekoak. Ezein kasutan ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen legezko diruaren ematearen bitartez ordaindutako kopuruek.

Ondorio horietarako, eginiko obregatik ordaindutako kopurutzat joko dira obrak egiteko beharrezkoak direnak, barne harturik lanbide-ordainsariak, proiektu teknikoak idaztearen kostuak, obra-zuzendaritzarenak, obra edo instalazioak egitearen kostuak, ekipamendu eta materialetan eginiko inbertsioak eta horien garapenerako beharrezkoak diren beste gastu batzuk, bai eta energia-efizientziari buruzko kasuko ziurtagirien jaulkipena ere. Nolanahi ere, kopuru horietan ez dira aintzat hartuko jatorri fosileko erregaiak darabiltzaten ekipamenduak instalatu edo ordeztzeko kostuak.

Jabe-erkidego batek eginiko obren kasuan, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria osa dezakeen zenbatekoa, 3. apartatuan aipatua, suertatuko da jabe-erkidegoak ordaindutako kopuruei, aurreko paragrafoan aipatuei, partaidetza-koefizientea aplikatuzetik.

5. Aurreko apartatuetan aipatuta datozen energia-efizientziako ziurtagiriak jaulki eta erregistratuak izan beharko dira ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuari jarraikiz, zeinaren bidez onesten baita eraikinen energia-efizientiaren ziurtagiria egiteko oinarritzeko prozedura.

Kenkari horiek egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, baliodun izanen dira obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagiriak, baldin eta ez bada bi urteko epea igaro jaulkipen-dataren eta obra-hasieraren dataren artean.

6. Energiaren eta etxebizitzaren alorretan eskudun diren departamentuek informazioa helarazi beharko diote Nafarroako Foru Ogasunari energia-efizientziari buruzko ziurtagiri erregistratuei eta eman diren laguntzen ebazpen behin betikoei buruz, horiek eman direnean etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obregatik. Informazio horri gehituko zaizkio kasuko katastro-erreferentziako zenbakiak.

Tributu-alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez zehazten ahalko da zein den eman beharreko informazioa eta informatze-betebehar hori nola eta zer epetan bete behar den».

Zioak: Etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzeko xedez planteatzen dugu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria aldatzea, beste urtebetez luzatzeko energia-birgaitzeagatik kenkariaren aplikazioa. Horrela, epe luzeagoa dago etxebizitzetan energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa edo haiek berotzeko edo hozteko energia eskaria murrizteko obrak gauzatu ahal izateko.

## 25. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, aldatzea.

Bigarren paragrafo bat gehitzen zaio 16. artikulua-  
ren 5. apartatuari. Hona testua:

“Halaber, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuak izendatutako pertsonak Gobernu Akordioan horretarako ezartzen den kalte-ordaina jasoko dute, foru lege honen 10. artikulua-  
ren 6. apartatuan ezarritako txosten teknikoa prestatzen parte hartzeagatik”».

Zioak: Gure ustez, funtzionario izateagatik batzordean nahitaez parte hartzen dute auzitegi-medikuek, ez baitira ez izendapen libreko langileak ez Parlamentuak proposatutakoak. Egiten duten lana, egiten dituzten txostenetan agertzen dena, ezinbestekoa da batzordeak behar bezala funtziona dezan.

## 26. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

Azken xedapen bat eransten da. Testu hau izanen du:

«Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak goi karguen bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legea, azaroaren 4koa, aldatzea.

Aldatu egiten dira Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikulua-  
ren 3. eta 4. puntuak, eta idazketa hau izanen dute aurrerantzean:

“3. Aurreko apartatuan araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:



a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatik ordainsariekin, sektore publikokoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatik dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseiluetara joateagatik dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Aipatutako ordainsariak edo diru-sarrerak txikiagoak badira, urteko zenbaketan, aurreko apartatuan ezarritako prestazio ekonomikoa baino, aldea jasotzeko eskubidea besterik ez dute izanen.

4. Inola ere ez dute aurreko apartatueta ezarritako prestazioa jasoko administrazio publiko batean edo horien mendeko erakunde autonomo batean lanpostu bat erreserbatuak duten enplegatu publikoek, ez eta kargua utzi ostean aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotatik erretiro-pentsioa jasotzen dutenek ere”».

Zioak: Erretiro-egoerara igarotzen diren pertsonentzako kargua uzteagatik ordainsaria ez da oinarritzen figura horren justifikazioan, horren xedea baita goi-kargu batean egon diren pertsonen goi-kargu bat izan ostean sortzen diren bateraezintasunen ondorioz gero lanpostu batera itzultzeko dituzten zailtasunak konpentsatzea. Gainera, lehen eta bigarren mailako pensiodunak sortzen dira.

### 30. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea aldatzea.

29. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“29. artikulua. Departamentu-egitura.

1. Banaketa funtzionalaren printzipioari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa departamentutan egituratzen da, eta departamen-

tuak hamar izanen dira gehienez. Departamentu bakoitzak bere baitan hartzen ditu jardura administrazio boko sektore funtzionalki homogeen bat edo gehiago, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak.

2. Departamentuak sortu, aldatu, bateratu edo kentzea eta departamentu bakoitzaren eskumena jardura administrazioaren zein sektoretara iritsiko den finkatzea Nafarroako Gobernuak lehendakariari dagokio, eta foru dekretu bidez egin behar du”».

Zioak: Mugatu egin behar da Foru Komunitateko Administrazioa zenbat departamentutan egituratzen ahal den; izan ere, horietako bakoitzak berekin dakartzan administrazio-egiturek kostu handia dakarkie diru-kutxa publikoei.

### 31. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea aldatzea.

Hamazazpigarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoa aldatzen da –Nafarroako toki entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeari. Honela gelditzen da:

“Aipatu erregelamenduan honako alderdi hauek bilduko dira: Pertsona horiek Foruzaingoan sartzeari, edonola ere, boluntarioa izanen da beti, baina jatorri duen udal entitatearen baimena eduki behar du. Sartze hori eskubide eta betebeharrak guztiekin egiten da; aldeztuak gaituzten behar du diru beharrezkoak diren gaituzten probak eta ikastaroak Nafarroako Segurtasun eta Larrialdia Eskolan. Halaber, prozedura horretan parte hartuko dute ordezkariak duten erakunde sindikalek”».

Zioak: Foruzainen kopurua handitzea eta pasabideak aldeztuko eta Foruzaingoa polizia integrala eta erreferentziako polizia izatea aldeztuko, kendu egiten da tokiko poliziak soilik sartu ahal izatea Foruzaingoan baldin eta udaltzainak edo agenteak udaltzain edo agente badira foru legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean, kontuan hartu behar baita, gainera, Nafarroako Gobernuak ez duela bete prozedura hori arautzeko erregelamendua urtebetean taxutzeko betebeharra.

**32. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, hirugarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Nafarroako Polizieiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea aldatzea.

Hirugarren xedapen iragankorraren hirugarren paragrafoa aldatzen da. Honela gelditzen da:

“Edonola ere, baldintza gisa ezartzen da ordu-konpentsazioa aukeratzen dutenek ezin izanen dutela bosgarren xedapen gehigarrian jasotako jardunaldiaren hamabirenaren murrizketa baliatu”».

Zioak: Foru legea indarrean sartu ondoren foruzain bihurtu direnek pairatzen duten diskriminazio-egoera amaiarazi nahi da, horiek ezin dute proba fisikoak egiteko ordu-konpentsazioa baliatu. Are gehiago kontuan hartzen badugu foru legea indarrean sartu eta bost urtera erregelamendu bidez garatu gabe dagoela xedapen iragankor hori.

## 2024-rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren kontu-sailei aurkezturiko zuzenketak

## GASTUEN EGOERA-ORRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
34	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	PPN
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>		
	350.000	01000 2269 921100 Irisgarritasun unibertsala		
2.	Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
35	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Ekon. Kontu-saila</b>		
	300.000	6000 Nafarroako Gobernuaren erregistro-bulegoen irisgarritasunerako plana		
2.	Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
36	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	PPN
<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>		
	150.000	Toki entitateentzako diru-laguntza, irisgarritasun planak egiteko		
2.	Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
37	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Ekon. Kontu-saila</b>		
	60.000	2000 Prozedura eta agiri irisgarriak prestatzea		
2.	Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
38	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	PPN
<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>		
	50.000	Kanpaina irisgarriak		
2.	Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			

39	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	031 Analisi eta Prospekzio Bulegoa	031000 Analisi eta Prospekzio Bulegoa	CONTIGO
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	10.000	Hitzarmena Barañaingo Udalarekin, adineko pertsonen eta haien beharrazinari buruzko azterlan bat egiteko	
40	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060000 Komunikazio eta Erakundeekiko	PSN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	75.000	Nafarroa markaren garapena 30.000 biztanlelik gorako toki entitateentzat	
41	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060001 Komunikazio eta publizitate instituzionala	EH BILDU
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	50.000	Hitzarmena Nafarpres Multimedia Kultur Elkartearekin tokoki aldizkariak sustatzeko	
42	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060003 Ikus-entzunezkoen sektorea	PSN, GEROA BAI Y CONTIGO
	<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	175.000	Nafarroako telebista autonomikoak ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak	
43	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060004 Protokolo-jarduketak	UPN
	<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	500.000	Nafarroaren Eguna	
44	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080000 Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	60.000	Eraikinen, prozeduren eta agiriaren irisgarritasunaren diagnosis eta plana	

45	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080000 Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	60.000	Prozedura eta agiri irisgarriak prestatzea	
46	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080000 Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	40.000	Irisgarritasun unibertsalerako lanak	
47	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	CONTIGO
	<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	5.000	08100 4819 232207 Tokiko ekintzako taldeentzako transferentziak	
48	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	UPN
	<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	100.000	08200 2269 232200 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko jarduketak	
49	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	EH BILDU
	<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	10.000	08200 4309 232200 IPES Fundazioarekiko hitzarmena, Emakumearen Dokumentazio Zentroaren eta Liburutegiaren Zerbitzurako.	
50	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	PSN
	<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b>	
	2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat	3.742	08200 4819 232202 Nafarroako Berdintasunaren aldeko Emakumeen eta/edo Feministen Erakundearen Kontseiluarekiko hitzarmena emakumeen parte-hartzea sustatzeko	

14	<p>51 0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua</p> <p><b>ALDATZEKO</b></p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Instituitua</p> <p><b>Zenbatekoa Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 37.000 08200 4819 232203</p> <p>080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak UPN</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin:</p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Instituitua</p> <p><b>Zenbatekoa Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 30.000 08200 4819 232203</p> <p>080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak CONTIGO</p>
52	<p>0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua</p> <p><b>ALDATZEKO</b></p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Instituitua</p> <p><b>Zenbatekoa Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 5.285 08200 4819 232204</p> <p>080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak PSN Y CONTIGO</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Instituitua</p> <p><b>Zenbatekoa Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 8.000 08200 4819 232208</p> <p>080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak PSN, EH BILDU, GEROA BAI Y CONTIGO</p>
53	<p>0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua</p> <p><b>ALDATZEKO</b></p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Instituitua</p> <p><b>Zenbatekoa Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 7.000 08200 4819 232209</p> <p>080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak PSN Y EH BILDU</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Instituitua</p> <p><b>Zenbatekoa Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 9.000 08300 4609 232200</p> <p>080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak PSN Y CONTIGO</p>

57	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak UPN
<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 100.000	<b>Kontu-saila</b> Dirulaguntzak toki entitateei, Zaintzen aldeko Toki Itunak gauzatzeko	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
58	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080002 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketak PSN, GEROA BAI Y CONTIGO
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 30.000	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 08100 4819 232208	Giza salerosketaren aurkako ekintzarekiko hitzarmena Bizirik dirauten emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
59	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080002 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketak UPN
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 30.000	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 08100 4819 232208	Giza salerosketaren aurkako ekintzarekiko hitzarmena Bizirik dirauten emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
60	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080002 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketak CONTIGO
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 15.000	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 08100 4819 232302	Hitzarmena Itxaropen Gune elkartarekin, prostituzioaren eta/edo sexu-salerosketaren biktimentzako harrerako ballabiderako
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
61	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080002 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketak PPN
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 50.000	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 08100 4819 232303	Médicos del Mundorekiko hitzarmena. Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentziarako eta jardunerako Nafarroako protokoloa
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
62	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080002 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketak UPN
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 50.000	<b>Orga. Ekon. Funtzionala Kontu-saila</b> 08100 4819 232303	Médicos del Mundorekiko hitzarmena. Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentziarako eta jardunerako Nafarroako protokoloa
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			

16	<p>63 0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua</p> <p><b>ALDATZEKO</b></p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua</p> <p><b>Zenbatekoa</b> 30.000    <b>Orga.</b> 08100    <b>Ekon. Funtzionala</b> 232303    <b>Kontu-saila</b> 08100 4819 232303</p> <p>EH BILDU, GEROA BAI Y CONTIGO</p> <p>080002 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko jarduketak</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p>	<p>080003 LGTBI+berdintasunaren arloko jarduerak</p> <p>CONTIGO</p>
64	<p>0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua</p> <p><b>ALDATZEKO</b></p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua</p> <p><b>Zenbatekoa</b> 20.000    <b>Orga.</b> 08300    <b>Ekon. Funtzionala</b> 232200    <b>Kontu-saila</b> 08300 2262 232200</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p>	<p>080003 LGTBI+berdintasunaren arloko jarduerak</p> <p>CONTIGO</p>
65	<p>0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua</p> <p><b>GEHITZEKO</b></p> <p>080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua</p> <p><b>Zenbatekoa</b> 18.000</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p>	<p>080003 LGTBI+berdintasunaren arloko jarduerak</p> <p>CONTIGO</p>
66	<p>1 - Ekonomia eta Ogasun Departamentua</p> <p><b>GEHITZEKO</b></p> <p>111 Ondarearen kudeaketa</p> <p><b>Zenbatekoa</b> 2.800.000</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p>	<p>111002 Ondasun higiezin eta eskubideen kudeaketa</p> <p>UPN</p>
67	<p>1 - Ekonomia eta Ogasun Departamentua</p> <p><b>GEHITZEKO</b></p> <p>111 Ondarearen kudeaketa</p> <p><b>Zenbatekoa</b> 60.000</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p>	<p>111003 Plangintza eta garapena</p> <p>UPN</p>
68	<p>2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua</p> <p><b>GEHITZEKO</b></p> <p>200 Lurralde kohesioko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak</p> <p><b>Zenbatekoa</b> 60.000</p>	<p>2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat</p>	<p>200000 Lurralde kohesioko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak</p> <p>UPN</p>



69	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	200 Lurralde kohesioko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	200000 Lurralde kohesioko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 60.000	<b>Kontu-saila</b> Prozedura eta agiri irisgarriak prestatzea	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
70	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekinzak eta eronka demografikoa	210000 Toki Administrazioiko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 600.000	<b>Kontu-saila</b> Toki entitateentzako dirulaguntzak, irisgarritasun-diagnostikoak egiteko	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
71	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekinzak eta eronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 2.000.000	<b>Kontu-saila</b> Tuterako Udalarentzako transferentzia, La Serna II industrialdearen urbanizazioaren lehen faserako	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
72	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekinzak eta eronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 1.800.000	<b>Kontu-saila</b> Dirulaguntza Castejongo Udalari, kiroldegia eta egoitzaren funtzionamendurako	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
73	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekinzak eta eronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 1.500.000	<b>Kontu-saila</b> Lizarrako Udalarentzako transferentzia, Ipar Kalea bulebarra urbanizatzeko	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
74	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekinzak eta eronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	PPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 1.000.000	<b>Kontu-saila</b> BURLATAN IRISGARRITASUN PLAN BAT PRESTATU ETA GAUZATZEA	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
75	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekinzak eta eronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
	<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbakekoa</b> 1.000.000	<b>Kontu-saila</b> Tuterako Udalarentzako transferentzia, Sementales Eraikina birmoldatzeko	
	2. Proposaturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			

176	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekintzak eta erronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbakekoa</b> 1.000.000	<b>Kontu-saila</b> Ustaizeko Kontzejuaerentzako transferentzia: hornidura eta saneamendu sareak berritzea	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
177	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekintzak eta erronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbakekoa</b> 600.000	<b>Kontu-saila</b> Valtierrako Udalarentzako transferentzia, industrialdea urbanizatzeke	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
178	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekintzak eta erronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbakekoa</b> 500.000	<b>Kontu-saila</b> Valtierrako Udalarentzako transferentzia, ur-kontagailuak digitalizatu eta matxurak nahiz ur-ihesak detektatzeko	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
179	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	210 Toki-sektoreko ekintzak eta erronka demografikoa	210001 Toki sektoreari laguntzeko jarduketak	UPN
